1. GAIA:
Euskara gaur

A Hizkuntzako Ahozko eta Idatzizko Adierazpena I

I. GAIA: egitura

1.1. Euskara hizkuntza gutxitu gisa

1.2. Euskararen ofizialtasuna

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza

1.4. Euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerak

1.1. Euskara hizkuntza gutxitu gisa

- Nazio bat = estatu bat = hizkuntza bat?
- Errealitatea oso bestelakoa da
- Estatuen mugak = hizkuntzen eta hizkuntza komunitateen mugak?



Hizkuntzak kontinenteka

Hizkuntz kopurua estatuka

Estatua	Gunnemark (1991)	Krauss (1992)	Grimes (2000)
Papua Ginea Berria	750	850	823
Indonesia	300	670	726
India	350	380	387
Nigeria	400	410	505
Kamerun	200	270	279
Mexiko	—	240	288
Australia	150	250	235
Brasil	150	210	192
Zaire / Kongo	200	200-220	218
Txina	—	100-160	201
AEB	150	100-160	176
Filipinak	100	100-160	169
Myanmar	100	100-160	107
Nepal	—	100-160	120
Errusia	100	100-160	100
Malaysia	120	100-160	139
Sudan	100	100-160	134
Tanzania	100	100-160	135
Etiopia	—	100-160	82
Txad	—	100-160	132
Vanuatu	100	100-160	109
Afrika Erdiko Errepublika	—	100-160	68

1.1. Euskara hizkuntza gutxitu gisa

- Nazio bat = estatu bat = hizkuntza bat?
- Errealitatea oso bestelakoa da
- Estatuen mugak = hizkuntzen eta hizkuntza komunitateen mugak?
- UNESCOren lana:

  Hizkuntzen mundua txostena

- " 'Hizkuntza' kontzeptua Papua Ginea Berrian" (Ethnologue-ko mapa: http://www.ethnologue.com/show_country.asp?name=PG) izeneko artikulua irakurri eta erantzun ondoko galderak:

  - **Zergatik dira arazotsuak hizkuntzalariek proposatutako Papua Ginea Berriko hizkuntzen sailkapenak?**
  - **Zergatik daukate irudi nahasia Papua Ginea Berriko hizkuntza egoeraz egindako idazkiek?**
  - **Zein dira Papua Ginea Berriko hizkuntza egoera gaizki ezagutzearen ondorioak ?**

•Itziar Idiazabal, UNESCO Etxearen kideari elkarrizketa:

https://www.youtube.com/watch?v=jZ3Kn7hULI4

•**GALDERAK:**

- **1996. urte arte ez zen hizkuntzen inguruko proiektua sortu Unescon. Zergatik esan zituen erakundeak gauza gutxi hizkuntzei buruz ordura arte?**

- **Hizkuntza gutxituei buruzko aurreiritzi asko dago: atzerakoiak direla, ez dutela balio aurrera egiteko... Munduan zehar hizkuntza gutxitu askok aurreiritzi horri aurre egitea dute lehen mailako borroka. Gurean hein batean behintzat gainditua dagoela dio Idiazabalek. Ordea, oraindik oso sakon errotua eta aurrekoa baino arriskutsuago den aurreiritzia aipatzen du. Zein da? Zergatik iruditzen zaio hain arriskutsua?**

Irakurri Manterola eta Berasategiren (2011) liburuko lehen atala eta idatziz erantzun honako galdera hauek irailaren 26ko eskolarako.

1. Zure ustez, nolakoa da, oro har, euskararen bizindar linguistikoa? Erantzuna emateko, erabil itzazu bizindar linguistikoa neurtzeko erabili ohi diren sei aldagaiak.
2. "Hizkuntza aniztasuna aukera bat bakarrik da, beste aukera batzuen artean. Horregatik, gurasoek seme-alabei ez badiote etxeko hizkuntza transmititzen (hizkuntza gutxitua), edo ez badute etxeko hizkuntzan haurra eskolatzen, ba aukera hori egin dutelako da". Hona hemen, munduan zehar sarritan elebakartasunaren alde ematen den argudioa. Noski, ingelesa bezalako hizkuntza handi baten elebakartasunaren alde. Egiozu aurre iritzi edo baieztapen horri, argudioak emanez.
3. "Hizkuntza fenomenoari heltzeko abiapuntua aniztasuna da" (38. or.). Zer esan nahi du honek?
4. Zergatik esaten da hizkuntza gutxituak direla, ziurrenik, hizkuntza aniztasunaren bermea?

I. GAIA: egitura

1.1. Euskara hizkuntza gutxitu gisa

1.2. Euskararen ofizialtasuna

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza

1.4. Euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerak

1.2. Euskararen ofizialtasuna (I)

“Hizkuntzen ofizialtasuna”, Martí et al. 2005, 3. kapitulua.

- Zer esan nahi du hizkuntza bat ofiziala izateak?
- Zenbat hizkuntza dira ofizial edo koofizial munduan?
- Ofizialtasuna, teorian eta praktikan

1.2. Euskararen ofizialtasuna (II)



EUSKARA, HIZKUNTZA OFIZIALA. 5 ARAUDI DESBERDIN • EUSKERA, LENGUA OFICIAL. 5 NORMATIVAS DIFERENTES
EUSKARA, LANGUE OFFICIELLE. 5 NORMATIVES DIFFÉRENTES • BASQUE OFFICIAL LANGUAGE. 5 DIFFERENT REGULATIONS



① Frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra
El francés es la única lengua oficial
Le français est la seule langue officielle
French is the only official language

② Gaztelania eta euskara dira hizkuntza ofizialak Euskal Autonomia Erkidego osoan
Castellano y euskera son lenguas oficiales en toda la Comunidad Autónoma Vasca
L'espagnol et l'euskara sont langues officielles dans l'ensemble de la Communauté Autonome Basque
Basque and Spanish are official languages in all the Basque Autonomous Region

③ Gaztelania eta euskara dira hizkuntza ofizialak Nafarroako Foru Komunitateko eremu honetan
Castellano y euskera son las lenguas oficiales en esta zona de la Comunidad Foral de Navarra
L'espagnol et l'euskara sont langues officielles de cette zone de la Communauté Forale de Navarre
Basque and Spanish are official languages in this zone of the Foral Community of Navarre

④ Gaztelania eremu honetako hizkuntza ofiziala da, baina euskaldunei zenbait eskubide aitortzen zaizkie
El castellano es la lengua oficial de esta zona, pero se reconocen ciertos derechos a los vascohablantes
L'espagnol est la langue officielle de cette zone, mais certains droits sont reconnus aux bascophones
Spanish is the official language in this zone, but certain rights are recognized to Basque speakers

⑤ Gaztelania da eremu honetako hizkuntza ofiziala
El castellano es la lengua oficial de esta zona.
L'espagnol est la langue officielle de cette zone
Spanish is the official language in this zone

1.2. Euskararen ofizialtasuna (III)

Euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza eskubideak:

- Euskararen ofizialtasuna Euskal Herrian:

  - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa: Gernikako Autonomia Estatutoa (1979) (http://www9.euskadi.net/autogobierno/estatu_com_e.htm) eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea (1982) (http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/8201955a.pdf) / Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (bertsio berritua) (http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/euskara_legearen_itzulpen%20berria%20IZO.pdf).

  - Nafarroa: Nafarroako Foru Araubidea Berrezartzeko eta Hobetzeko Legea (1982) (*http://www.parlamentodenavarra.es/UserFiles/files/publicaciones/Textos_Legales/Amejoramiento_euskera.pdf*) eta Euskararen Legea (1986) (http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Vascuence/LF181986-04.htm) eta Foru dekretua (2000) (http://www.cfnavarra.es/WebGN/SOU/INSTITUC/CT/NORMATIVA/PRESIDENCIA/8E020000.htm)

  - Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: 75-1 artikulua konstituzioari erantsia (2008)

- Europa mailan: Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (http://sites.google.com/site/euskallegezalea/eskualdeetakoedueremuurrikohizkuntzeneur)

Nafarroako Euskararen legea (1986)

- Eremu euskalduna → euskara ofiziala
  - Udalerriak: Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Betelu, Auritz, Ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoien, Erroibar, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Uharte-Arakil, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Luzaide, Bera, Hiriberri, Igantzi, Zubieta eta Zugarramurdi. (Lekunberri, Irurtzun)
- Eremu mistoa
  - Udalerriak: Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Artzibar, Atez, Barañain, Burgi, Burlata, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Eguesibar, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Garde, Goñerri, Gorza, Gesalatz, Uharte, Izaba, Itza, Itzaltzu, Eaurta, Txulapain, Lezaun, Lizoainibar, Otsagi, Odieta, Olaibar, Oltza, Ollaran, Orontze, Orotz-Betelu, Iruña, Gares, Erronkari, Jaitz, Sartze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Bidaurreta, Atarrabia, Deierri eta Zabaltza. (Aranguren, Belaskoain, Galar)
- Eremu ez-euskalduna



1.2. Euskararen ofizialtasuna (III)

- Hizkuntza eskubideak eta euskara:
  - Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (http://www.hikhasi.eus/docs/55/DEKLARAZIOA.pdf.pdf)
  - Behatokia (http://www.behatokia.org/) (euskararentelefonoa.com) (http://www.euskararentelefonoa.com/)
  - Elebide (http://www.euskara.euskadi.net/r59-eleb/eu/)
  - Herri ekimenak, norbanakoen ekimenak… (http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1316678505)

Gasteizko Udaletxeko kanpaina 2011-2012

Udaletxeko kanpaina (http://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/2011/09/09/%E2%80%9Celebiduna-naiz-aberatsa-naiz-%E2%80%9D/?lang=eu)

bideoak (http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&uid=u_38d99fde_1328f612b2e__7fbe&aplicacion=wb021&tabla=contenido&enlacebanner=true)

I. GAIA: egitura

1.1. Euskara hizkuntza gutxitu gisa

1.2. Euskararen ofizialtasuna

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza

1.4. Euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerak

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza (I)

- Aurreko garaietako egoera irauli nahian (Ahotsak.com):

  - Eskola

    http://www.youtube.com/watch?v=26li8NPvqbY&feature=BFa&list=PL20F6BF69B659B0E7

  - Kalea

    http://www.youtube.com/watch?v=DxrN3AKEbKA&list=PL20F6BF69B659B0E7&index=5&feature=plpp_video

  - Transmisioa

    http://www.youtube.com/watch?v=Gst_dZUg6ek&list=PL20F6BF69B659B0E7&index=12&feature=plpp_video

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza (II)

- Normalizazioa zer den
- Hezkuntza elebiduna normalizazioaren tresna gisa
- Hezkuntza euskararen lurraldeetan:

a) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (Zalbide 1998)

- A, B eta D ereduak eremu osoan

b) Nafarroan (http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos)

- A, B, D, G ereduak eta hiru eremu linguistiko

c) Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan

- B eta D ereduetatik hurbil diren ereduak eskola publikoetan. Eskola pribatuak salbuespen.

1.3. Euskararen normalizazioa eta hezkuntza (III)

- Ereduen bilakaera (Betbeder 2006 (http://www.soziolinguistika.org/node/3193); Manterola 2010 (http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Ciencias_Sociales/Euskarazko%20murgilketa%20haur%20hezkuntzan.pdf)
  - EAE : D ↑, B mantendu, A ↓.
  - Nafarroa: eredu elebidunak ↑, euskararik gabekoa ↓.
  - Iparraldea: euskara ikasten duten ikasleak ↑, hala ere, gehienek, euskararik ez.

- Bilakaera horren arrazoiak:
  - euskararen irakaskuntzaren kalitatea, euskararen balio instrumentala haztea, egoera soziolinguistikoa

Hezkuntza hizkuntzaren etxea- Euskararen berreskuratzea IV

http://www.garabide.eus/euskara/bideoak/euskararen-berreskuratzea-iv-hezkuntza

Bizi eta oso izan nahi duen hizkuntza batentzat ezinbestekoa da hezkuntza proiektu propioa izatea. Hiztun komunitate batek borondate argia badu gara dezake bere Hezkuntza proiektua, eta arrakastatsua izan; hiztun komunitate bakoitzak asmatu behar du bere bidea, baina bizi nahi badu egin egin behar du. Zentzu honetan euskaldunon esperientziaz dihardu 18 minutuko bideo honek. Alberto Barandiaranek koordinatu du eta Garabide burutzen ari den Euskararen berreskuratzea saileko laugarrena da. Beste hirurak hauek dira: Euskararen berreskuratzea; Hizkuntzaren estandarizazioa - Euskararen berreskuratzea II; Hedabideak - Euskararen berreskuratzea III. Bideo hau garabide.org web orrian kontsulta daitekeen izenburu bereko liburuaren osagarria da.

1. Nola kontatzen du Argitxu Nobliak Baionan haurrak euskarazko eskola jasotzen hasi zirenekoa? Aipatu zure ustez esanguratsuenak diren kontuak.
2. Gurasoen nahia eta erabakiarekin batera, irakasleen ekarpena ere funtsezkoa izan zen euskarazko eskolak abiatzeko orduan. Zertan, zehazki?
3. Xabier Garagorrik kontatzen du nola 60. hamarkada inguruan ikusi zuten eskola funtsezkoa izango zela euskarari zegokionez. Zertan, zehazki?
4. Zeri deitzen zaio murgilketa?
5. Zein dira euskarazko murgilketaren onurak?
6. Dokumentalean esaten da hizkuntza batek ez duela derrigorrez eskola behar, bestela ere aurrera egin dezakeela. Baina zer da eskolak hizkuntza bati eman diezaiokeena?
7. Materialak, curriculuma edota irakasle prestatuak garrantzitsuak dira hizkuntza bat eskolaren bidez transmititzen eta ondorioz, biziberritzen hasteko. Baina Euskal Herriko kasuak zer erakutsi du? Zer da funtsezkoa aipatutako osagai horien gainetik?
8. Galdera honen erantzuna ez da zuzenean dokumentalean ematen, baina zeuen eskolatze elebiduna gogoan hartuta, saiatu erantzuten. Nola uler daiteke orain 50 bat urte hasitako ikastolen eredua (edo "jatorrizko hizkuntzan ardaztutako hezkuntza sistema") elebiduntzat jotzea, eta aldiz, estatu handiek bultza duten eskola elebakartzat hartzea, batean zein bestean eskolatzea hizkuntza batean bakarrik egiten bada? (Ikastoletan euskaraz, estatu handien eskoletan gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, eta abar).
9. Garabide elkartearen helburu nagusiak hauexek dira (http://www.garabide.org/euskara/nor-gara/helburuak)

   - Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetza bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.

   - Norabide horretan, munduko hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuetako eragileekin lankidetza proiektuak garatzea. Lankidetza proiektu hauek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor desberdinetan gauzatuko dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriz.

   - Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek hego hemisferioko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Zuen ustez, dokumentalak zein neurritan balio dezake helburu hauek betetzeko?